

**PROMIXIN 1 MUI AMP INH® (pauta: 0,5 mu/12 H)****Zer da eta zertarako erabiltzen da medikamentu hau?**

Fibrosi kistikoa duten pazienteei *Pseudomonas aeruginosa* eragiten dien biriketako infekzioa tratatzeko erabiltzen da Promixin®. Birika barnerantz xurgatzen da (inhalatzen da), eta, hala, antibiotikoaren zatirik handienak zuzenean jardun dezake infekzioa sortzen duen bakterioaren aurka.

Nola hartu behar da medikazioa?

Medikuak esango dizu zein den hartu beharreko dosia eta maiztasuna. Medikazioa etenik gabe hartu behar duzu, kontsultaren egunetik hurrengo kontsulta medikora arte; orduan jakinaraziko dizute berdin jarraitu behar duzun ala dosia aldatu behar

duzun. Inhalazio bidezko beste tratamenduren bat hartzen ari bazara, hartu itzazu hurrenkera honetan:

1. Arnas-fisioterapia;
2. Bronkio-zabaltzailea (adibidez, salbutamola);
3. Promixin.

Promixin®-en kaxa bakoitzean disko itsasgarri beltz bat duen txartel bat dago; kaxa bat erabiltzen hastean, I-neb AAD® inhalagailuan sartu behar duzu disko hori.

Diskoa gailuan akoplatzen da, eta oso atal garrantzitsua da; beraz, ez da galdu behar, diskorik gabe ezingo baita nebulizatorik egin. Promixin® hartu baino lehen, **ur esterilarekin** disolbatu behar duzu, Farmaziako Zerbitzuan adierazitakoari jarraiki.

Promixin® likidoan disolbatzean, ez astindu biala indarrez. Disolbatzean, sartu disoluzioa I-neb AAD® nebulizagailuan, eta gailuarekin batera datozen jarraibideen arabera jokatatu.

Zer egin dosi bat hartzea ahazten bazaizu?

Hartu dosia gogoratu bezain laster, baldin eta hurrengo dosia hartzeko ordua iristeko gutxi falta ez bada. Ez duzu konpentsatu behar hartu gabeko dosi hori. **EZ BIKOIZTU SEKULA DOSIAK.**

Nola kontserbatu medikamentua?

Ez eduki Promixin® bialak 25 °C-tik gorako tenperaturan. Argitasunetik babestu.

Promixin® osatuaren bialak 48 orduz irauten du egonkor hozkailuan (2-8 °C). Beraz, **0,5 MIU/12 h**-ko dosia agintzen badute, biala **2 ml**-rekin osatuko da; hortik, **1 ml** hartuko da, eta, gainerakoa, hurrengo nebulizatorako gordeko da. Nebulizazio bakoitzean 1 ml hartu behar da beti.

**¿Qué es este medicamento y para qué se utiliza?**

Se usa para tratar infecciones pulmonares producidas por *Pseudomonas aeruginosa* en

pacientes con fibrosis quística. Promixin® es aspirado hacia el interior de los pulmones (inhalado), de esta forma la mayor parte del antibiótico puede actuar directamente frente a la bacteria que causa la infección.

¿Cómo debe administrarse la medicación?

Su Médico le prescribirá su dosis y frecuencia exacta. Debe tomar la medicación **sin interrupciones** desde la consulta a

la siguiente visita médica, donde se le indicará si continua o cambia de dosis.

Si está recibiendo diferentes tratamientos por vía inhalada, úselos en el siguiente orden:

- 1º Fisioterapia respiratoria,
- 2º broncodilatador (por ejemplo, Salbutamol),
- 3º Promixin.

Cada caja de Promixin® contiene una tarjeta con un **disco adhesivo de color negro**, al comenzar a utilizar una caja debe insertar en el inhalador I-neb ADD® este disco.

El disco que se acopla al aparato es una parte muy importante del mismo, no se debe perder porque **sin el no se producirían las nebulizaciones.**

Antes de tomar Promixin® debe disolverlo con **agua estéril** según le indiquen en el Servicio de Farmacia. Al disolver Promixin® en el líquido evite agitar el vial vigorosamente. Una vez disuelto vierta la solución en el nebulizador I-neb AAD® y siga las instrucciones de uso que acompañan al dispositivo.

¿Qué debe hacer si se le olvida una dosis?

Tome la dosis tan pronto como se acuerde a no ser que esté próxima a la hora de la siguiente dosis. No tiene que compensar la dosis que se ha olvidado. **NO DUPLIQUE NUNCA LA DOSIS.**

¿Cómo conservar el medicamento?

No conservar los viales de Promixin® a temperatura superior a 25°C. Proteger de la luz.

La estabilidad del vial de Promixin® reconstituido es de 48h conservado en frigorífico (2-8°C), por lo que en el caso de que la dosis prescrita sea **0.5 MUI/12h**, el vial se reconstituirá con **2 ml**, se administrará **1 ml** y se guardará el resto para la siguiente nebulización. Siempre se administrará 1 ml por nebulización.

***Kontrako zer ondorio eragin ditzake medikamentu honek?***

Promixin®-ek eragin ditzakeen kontrako ondoriorik ohikoenak erreakzio alergikoak dira, besteak beste, larruazaleko erupzioak. Hori gertatuz gero, Promixin® hartzeari utzi behar diozu, eta medikuari jakinarazi behar diozu berehala. Pertsona batzuek opresioa sentitzen dute bularraldean, arnasketa txistukaria dute, eta eztula edo airea falta duten sentazioa. Hori dela eta, lehen dosia medikuaren edo erizainaren aurrean hartu behar da.

Promixin®-ek eragina izan dezake giltzurrunetan; batez ere, dosia handia bada edo giltzurrunei eragin diezaieketen beste medikamentu batzuk hartzen ari bazara. Gerta liteke Promixin®-ek, batzuetan, mina eragitea ahoan edo eztarrian.

Kontrako beste ondorio hauek ere izan litezke: ezpainetan eta aurpegian inurridura edo sorgortzea, zorbioak eta bertigoa, gaizki artikulatuz hitz egitea, ikusmenaren alterazioak, nahasmena, buru-alterazioak eta aurpegia gorritzea.

Tratamendua egiten den bitartean nabaritzen den sintoma oro jakinarazi behar zaie medikuari edo farmazialariari, behar diren neurriak har ditzaten.

¿Qué efectos adversos puede producir este medicamento?

Los efectos adversos más frecuentes de Promixin® puede producir a veces, reacciones alérgicas como erupciones cutáneas. Si esto ocurre debería dejar de tomar Promixin® y decírselo a su médico inmediatamente. Algunas personas experimentan opresión en el pecho, respiración sibilante, tos o la sensación de que les falta aire. Por este motivo, la primera dosis debe ser tomada en presencia de su médico o enfermera.

Promixin® puede afectar a los riñones, sobre todo si la dosis es elevada o si está tomando otros medicamentos que puedan afectar a los riñones. Es posible que Promixin® le produzca a veces dolor en la boca o en la garganta.

Otros efectos adversos pueden incluir: hormigueos o adormecimiento de los labios y en la cara, mareos y vértigo, habla mal articulada, alteraciones visuales, confusión, alteraciones mentales y rubor (enrojecimiento de la cara).

Siempre hay que notificar al médico ó farmacéutico cualquier síntoma que se observe durante el tratamiento para que éste tome las precauciones adecuadas.